

**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA**

Udal honetako behin-behineko kontu-hartzailea naizen honek, 2018ko Pasaia Udaleko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egiten dut, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzak 2018ko otsailaren 27an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen aurrekontua behin betiko. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehatzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	20.150.000,00
Kreditu gaikuntzak:.....	895.174,67
Kreditu txertaketak:.....	798.220,30
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu gehigarriak:.....	424.404,61
Behin betiko aurrekontua:.....	<u>22.267.799,58</u>

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluak, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA A	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	8.909.822,61	8.862.178,80	99,47	8.723.053,24	8.698.358,28	99,72
2 - Gastuak arrunt .	6.797.886,70	6.194.442,29	91,12	6.680.143,30	6.116.351,54	91,56
3 - Finantza gastuak	12.500,00	11.736,31	93,89	12.500,00	11.230,24	89,84
4 - Transferentzia arruntak	2.908.955,45	2.711.286,48	93,20	2.838.727,00	2.555.783,48	90,03
5 - Kreditu globala	24.910,50	0,00	0,00	59.106,99	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	3.092.712,18	1.476.478,53	47,74	3.336.690,26	2.604.105,73	78,04
7 - Kapital transferentziak	23.000,00	22.976,00	99,90	22.200,00	22.157,36	99,81
8 - Finantza aktiboak	18.012,14	18.012,14	100,00	10.809,11	10.809,11	100,00
9 - Finantza pasiboak	480.000,00	480.170,36	100,04	479.000,00	479.086,51	100,02
GUZTIRA	22.267.799,58	19.777.280,91	88,82	22.162.229,90	20.497.882,25	92,49

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

- Pertsonal gastuak % 99,47an exekutatu dira, eta hasieran aurreikusita ez zegoen igoera ere barnebiltzen du hasierako kredituak gehitu gabe.
- Inbertsio errealak kapituluak exekuzio baxua izan du, % 47,74koa, bai portzentaian eta bai balore absolutuetan iazkoaren oso azpitik.

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2018 EKITALDIA		2017 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	1.476.478,53	47,74	2.604.105,73	78,04
Gastu erabiliak (D fasea)	1.895.596,47	61,29	2.627.348,39	78,74
Gastu baimenduak (A fasea)	2.844.316,58	91,97	3.290.924,17	98,63
Kredituak, guztira	3.092.712,18	100,00	3.336.690,26	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea iaiztik zerbait murriztu dela, baina hori kapital eragiketetan (6. kapitulua) izandako exekuzio baxuaren eragin zuzena da, izan ere gainontzeko kapituluetako gastuetan igoera izan da.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatiko ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	8.862.178,80	8.842.620,58	99,78	8.698.358,28	8.657.649,92	99,53
2 - Gastuak ond.arr. zerb	6.194.442,29	5.563.673,85	89,82	6.116.351,54	5.415.539,08	88,54
3 - Finantza gastuak	11.736,31	11.736,31	100,00	11.230,24	11.230,24	100,00
4 - Transferentzia arruntak	2.711.286,48	2.285.577,57	84,30	2.555.783,48	2.336.654,45	91,43
5 - Kreditu globala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	1.476.478,53	836.910,71	56,68	2.604.105,73	2.168.418,03	83,27
7 - Kapital transferentziak	22.976,00	21.557,97	93,83	22.157,36	21.644,61	97,69
8 - Finantza aktiboak	18.012,14	18.012,14	100,00	10.809,11	10.809,11	100,00
9 - Finantza pasiboak	480.170,36	480.170,36	100,00	479.086,51	479.086,51	100,00
GUZTIRA	19.777.280,91	18.060.259,49	91,32	20.497.882,25	19.101.031,95	93,19

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea handia dela, baina txikiagoa kapital eragiketetan, izan ere obligazio kopuru altua abenduan onartu zen, beraz urte amaieran ez zeuden ordainduta, obra gehienak abenduan martxan zeudelako.

**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA**

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarrerren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPEN AK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	3.830.660,00	4.010.255,23	104,69	3.852.660,00	3.322.323,35	86,23
2 - Zeharkako zergak	135.000,00	227.461,24	168,49	135.000,00	145.554,22	107,82
3 - Tasak t bestelako zergak	3.412.545,07	3.675.434,66	107,70	3.452.068,29	3.473.918,28	100,63
4 - Transferentzia arruntak	12.074.951,80	12.723.012,60	105,37	11.684.951,15	11.809.112,76	101,06
5 - Ondare sarrerak	135.400,00	164.768,29	121,69	144.305,00	149.840,44	103,84
6 - Inbertsio besterengan	30.000,00	395.464,91	1.318,22	0,00	29.493,85	29.493,85
7 - Kapital transferentziak	1.428.605,66	1.200.689,90	84,05	1.478.687,00	1.475.430,43	99,78
8 - Finantza aktiboak	1.220.637,05	18.012,14	1,48	1.414.558,46	490.763,32	34,69
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	22.267.799,58	22.415.098,97	100,66	22.162.229,90	20.896.436,65	94,29

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea oso handia izan dela %100 gainditu duelako. Nabarmendu behar da Zuzeneko zergak izandako igoera, %20koa iazkoarekin alderatuta. Gogoan izan behar da 2017 urtea atipikoa izan zela, Portuko eremuko OHZren itzulketak medio, batez ere. Bestalde, aipatu behar dira hiri-lurren balio gehikuntzaren zergan edota eraikinen, instalazioen eta obran gaineko zergan izandako joera ona.

- Zuzeneko zergak % 104,69ko exekuzioa lortu dute, batez ere hiri-lurren balio gehikuntzaren zergaren eraginagatik, aldiz OHZ eta lbigailuen gaineko zergak aurrekontuan egindako aurreikuspena ez dute erdietsi. Zeharkako zergetan ere (obra berezi baten eraginez) % 168,49ko exekuzioa lortu du.
- Tasetan % 107,70ko exekuzioa izan da, hainbat tasetan izandako bilakaeragatik.
- Kapital transferentziak gutxitu egin dira, eta exekuzio maila % 84,05ekoa izan da, inbertsioen exekuzioaren araberakoa.
- Transferentzia arruntetan % 105,37ko exekuzioa izan da Foru Funtzaren likidazio positiboaren eraginez, baina beste diru-laguntza batzuek, aldiz, (etxez etxeko laguntza, adibidez) exekuzio baxuak izan dituzte. Azkenik GLL diru-laguntzan ez da % 30eko azken ordainketa aintzatetsi, izan ere ebazpena ez da jaso itxiera burutzerako, eta konfirmazioa izan arte ez kontabilizatzea hobetsi da. Sarrera hori 2019ra atzeratuko da, eta irizpide hori mantenduko da aurrerantzean, beraz 2018. urtean kontzeptu honetan errealak baino sarrera txikiagoak aintzatetsi dira, irizpide aldaketagatik.

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2018 EKITALDIA			2017 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	4.010.255,23	3.725.171,25	92,89	3.322.323,35	2.996.116,89	90,18
2 - Zeharkako zergak	227.461,24	209.921,92	92,29	145.554,22	130.068,39	89,36
3 - Tasak t bestelako zergak	3.675.434,66	3.313.864,77	90,16	3.473.918,28	3.189.044,92	91,80
4 - Transferentzia arruntak	12.723.012,60	11.876.334,88	93,35	11.809.112,76	11.447.407,38	96,94
5 - Ondare sarrerak	164.768,29	148.876,54	90,36	149.840,44	136.091,67	90,82
6 - Inbertsio besterengan	395.464,91	395.464,91	100,00	29.493,85	29.493,85	100,00
7 - Kapital transferentziak	1.200.689,90	532.136,67	44,32	1.475.430,43	13.046,66	0,88
8 - Finantza aktiboak	18.012,14	3.536,75	19,64	490.763,32	483.333,01	98,49
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	22.415.098,97	20.205.307,69	90,14	20.896.436,65	18.424.602,77	88,17

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea handia izan dela kapital eragiketetan izan ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hitzarmenetako diru-laguntzak eta beste hainbat dirulaguntza 2019ko hasieran jasoko baitira.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJEA
2016	71.645,89	0,00	71.645,89	0,00	100,00
2017	1.325.204,41	1.820,99	1.323.383,42	0,00	100,00
GUZTIRA	1.396.850,30	1.820,99	1.395.029,31	0,00	99,87

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA**

	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA- PORTZENTAJEA
	37,38	37,38	0,00	0,00	0,00
	51.788,37	21,37	1.755,45	50.011,55	3,00
	360,05	360,05	0,00	0,00	0,00
	1.811,68	1.697,37	24,40	89,91	1,00
	2.742,13	1.209,20	507,92	1.025,01	19,00
	5.491,24	3.190,74	266,32	2.034,18	5,00
	12.532,73	5.783,19	513,42	6.236,12	4,00
	12.906,48	4.523,93	764,87	7.617,68	6,00
	16.829,02	5.188,10	1.345,00	10.295,92	8,00
	37.581,77	9.121,60	2.527,64	25.932,53	7,00
	59.279,53	14.449,84	4.442,68	40.387,01	7,00
	210.936,17	22.107,71	26.100,99	162.727,47	12,00
	948.724,02	7.975,15	33.719,71	907.029,16	4,00
	196.003,97	24.009,95	28.674,44	143.319,58	15,00
	601.744,48	362.046,08	62.546,94	177.151,46	10,00
	2.471.833,88	39.079,80	2.210.278,08	222.476,00	89,00
	4.630.602,90	500.801,46	2.373.467,86	1.756.333,58	51,26

Itxitako ekitaldietatik datozen eta abenduaren 31n kobratu gabeko saldoen artean, ondoko kontzeptuak azpimarratu behar dira, guztien artean guztiko honen % 70 azaltzen dutenak.

- Hirigintza aprobetxamenduak 2014 (hartzekodunen konkurtsua) 742.388,74 euro, kopuru osoaren % 42,27 osatzen duena.
- Isunak, hainbat ekitaldietatik datozenak: 174.064 euro.
- Ibilgailuen Zerga, hainbat ekitaldietatik eratorria: 162.255 euro.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, hainbat ekitaldietatik eratorria: 150.492 euro.

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

Kodea	Azalpena	GASTU OROKORRETARAKO GERAKINArekin finantzaturako kredituak (1)	GASTU OROKORRETARAKO GERAKINArekin finantzaturako obligazioak(2)
1 01.220.01.931.00 2017	BULEGO-MATERIALA	768,35	768,35
1 02.227.07.931.00 2017	KEEL IKUSKARITZA	10.660,10	3085,50
1 03.624.01.132.01 2017	IBILGAILUAK UDALTZAINGOA	13.442,19	0,00
1 04.480.02.326.02 2017	GIZARTERATZEKO PROIEKTUA	12.300,00	12300,00
1 05.628.01.332.10 2018	LIBURU EROSKETA	0,00	0,00
1 08.227.07.151.00 2017	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	37.269,30	31843,66
1 08.609.01.151.00 2014	UE VELASCO OBRAK	0,00	0,00
1 08.642.01.151.00 2017	PLAN OROKORRA	90.000,00	0,00
1 08.642.01.151.00 2016	PLAN OROKORRA	55.000,00	0,00
1 08.643.01.151.00 2018	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	12.000,00	0,00
1 08.643.01.151.00 2017	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	18.047,15	18047,15
1 08.643.01.151.00 2014	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	5.195,51	0,00
1 09.211.01.231.08 2018	KMK ERAIKINA ETA GAINERAKO ERAIKUNTZAK	7.679,40	7566,87
1 09.211.01.933.00 2018	KMK ERAIKINAK ETA GAINERAKO ERAIKUNTZAK	9.000,00	5969,53
1 09.221.04.326.10 2018	ERREGAIK	5.000,00	3028,08
1 09.221.04.341.00 2018	ERREGAIK	11.000,00	11000,00
1 09.221.99.162.10 2018	GAINOTZENKO MATERIALA: IHS	69.641,55	13139,62
1 09.226.99.338.00 2018	JAIETAKO GASTU OROKORRAK (ZERBITZUAK)	10.000,00	6370,55
1 09.629.01.162.10 2018	POLTSA KONPOSTAGARRIEN BANAGAILUAK	34.848,00	0,00
1 09.629.01.163.00 2018	GARBIKETARAKO INBERTSIOAK	140.000,00	0,00
1 09.629.01.163.00 2017	GARBIKETARAKO INBERTSIOAK	137.310,82	0,00
1 12.227.17.920.01 2017	KEEL SEGURTASUNA ETA GARBITASUNA	15.000,00	15000,00
1 12.470.03.241.01 2017	OARSOALDEA LAN EMPLEGUA	15.404,11	15404,11
1 17.601.01.153.00 2018	GRAN SOL KALEAN LOTURA-BIDEA ZOLATZEA	12.000,00	0,00
1 17.601.02.153.00 2018	EKIPAMENDU PUBLIKOAK. KOMUN PUBLIKOAK	14.250,00	16918,84
1 17.609.01.153.00 2018	IGOGAILUAK BIRGAITZEA. MAKINARIA ETA SAR	9.375,00	6740,37
1 17.609.02.153.00 2018	ANTXOKO TOPOKO ARKUPEAK BIRGAITZEA ETA F	27.000,00	29546,70
1 17.622.02.231.07 2018	GIZARTE-LARRIAL. ETXEBIZITZA ATONTZEA ET	6.000,00	5646,89
1 17.622.02.231.10 2018	DONIBANEKO GAZTELEKUA ATONTZEA ETA SARB	26.100,00	22414,81
1 17.623.02.136.00 2018	DONIBANEKKO HIRUG. SEGURTASUN PLANA	26.104,00	8799,05
1 17.682.01.933.00 2018	ANTXOKO - GURE ZUM- ELIZAREN FATXADA BIR	2.700,00	3821,12
		833.095,48	237.411,19

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berariazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.



**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIAKO UDALA**

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.

⇒ Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreraren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulaturakoak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA.
04.227.89.231.08	EGUNEKO ZENTROAK JARAUNSPENAREN ARABERA Proiektua, guztira: JARAUNSPENA JOSEFINA RUBIO	497.223,00 497.223,00	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2009TIK DATORRENA Proiektua, guztira: PMS 2009tik DATORRENA	156.989,79 156.989,79	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2013TIK DATORRENA Proiektua, guztira: PMS 2013tik DATORRENA	91.221,95 91.221,95	0,00 0,00
08.609.01.151.00	VELASCO BETEARAZTE SUBSIDIARIOA Proiektua, guztira: VELASCO BETEARAZTE SUBSIDIARIOA	367.822,77 367.822,77	0,00 0,00
05.628.01.332.10	LIBURU EROSKETA DONIBANEKO LIBURUTEGIA Proiektua, guztira: DONIBANEKO LIBURUTEGIA. PREMIO MARIA MOLINER	0,00 0,00	-1.706,66 -1.706,66
08.680.01.151.00	PMS 2017TIK ERATORRIA Proiektua, guztira: URBANIZAZIO KARGAK PMS 2017	29.493,85 29.493,85	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS EUSKADI ETORBIDEKO APROBETXAMENDUAK Proiektua, guztira: EUSKADI ETORBIDEA, HIRIGINTZA APROBETXAMENDUAK	395.464,91 395.464,91	395.464,91 395.464,91
08.227.07.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK AUSIN AD1134 LURTEK	4.719,00	4.719,00
08.609.99.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK AUSIN AD 1133 TESINSA Proiektua, guztira: BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK AUSIN	38.599,00 43.318,00	38.599,00 43.318,00

08.609.99.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK LARRABIDE AD1171 Proiektua, guztira:BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK LARRABIDE	10.800,00 10.800,00	10.800,00 10.800,00
08.227.07.151.00	IRISGARRITASUN PLANA Proiektua, guztira:IRISGARRITASUN PLANA	-15.000,00 -15.000,00	-15.000,00 -15.000,00
GUZTIRA		1.577.334,27	432.876,25

Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
02.399.01.920.00 02.853.01.920.00	BESTE HAINBAT SARRERA HERENTZIA 2016 AKZIOAK JOSEFINA RUBIOREN JARAUNSPENA Total proyecto:JARAUNSPENA JOSEFINA RUBIO	17.268,79 479.954,21 497.223,00	0,00 0,00 0,00	0,00 0,00 0,00
08.360.01.151.00	PMS 2009TIK DATORRENA Total proyecto:PMS 2009tik DATORRENA	156.989,79 156.989,79	0,00 0,00	0,00 0,00
08.360.01.151.00	PMS 2013TIK DATORRENA Total proyecto:PMS 2013tik DATORRENA	91.221,95 91.221,95	0,00 0,00	0,00 0,00
08.360.01.151.00	VELASCO BETEARAZTE SUBSIDIARIOA Total proyecto:VELASCO BETEARAZTE SUBSIDIARIOA	367.822,77 367.822,77	0,00 0,00	0,00 0,00
05.700.01.332.10	MARIA MOLINER SARIA 2017 Total proyecto:DONIBANEKO LIBURUTEGIA. PREMIO MARIA MOLINER	0,00 0,00	0,00 0,00	-1.706,66 -1.706,66
08.651.01.151.00	URBANIZAZIO KARGAK PMS 2017 Total proyecto:URBANIZAZIO KARGAK PMS 2017	29.493,85 29.493,85	0,00 0,00	0,00 0,00
08.651.01.151.00	HIRIGINTZAKO APROBETXAMENDUAK EUSKADI ETORB Total proyecto:EUSKADI ETORBIDEA, HIRIGINTZA APROBETXAMENDUAK	395.464,91 395.464,91	0,00 0,00	395.464,91 395.464,91
08.360.01.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK AUSIN R863 RIE 81 R1427 Total proyecto:BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK AUSIN	43.318,00 43.318,00	0,00 0,00	43.318,00 43.318,00
08.360.01.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK R 1039 921/2018 Total proyecto:BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK LARRABIDE	10.800,00 10.800,00	0,00 0,00	10.800,00 10.800,00
08.410.01.151.00	IRISGARRITASUN PLANA 2019 APIRILA LUZAPENA Total proyecto:IRISGARRITASUN PLANA	0,00 0,00	15.000,00 15.000,00	-15.000,00 -15.000,00
DESBIDERATZEAK, GUZTIRA		1.592.334,27	15.000,00	432.876,25

**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA****9.- SALDO KOBRAKITZEN ESTIMAZIOA**

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAKITZA %-TAN.	KOBRAKITZA EUROTAN
2 URTETIK GORAKO ZORRAK	1.533.857,58	0,00	100,00	1.533.857,58
URTEBETETIK GORAKO ZORRAK	222.476,00	0,00	0,00	165.804,20
1. kap.: zuzeneko zergak	108.347,10	0,00	78,02	84.532,41
2. kap.: zeharkako zergak	3.336,33	0,00	69,76	2.327,42
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	96.936,74	0,00	80,19	77.733,57
4. kap.: transferentzia arruntak	10.619,28	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	1.210,80	0,00	100,00	1.210,80
8. kap.: aktibo finantzarioak	2.025,75	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	2.209.791,28	0,00	0,00	372.197,95
1. kap.: zuzeneko zergak	285.083,98	0,00	48,88	139.349,05
2. kap.: zeharkako zergak	17.539,32	0,00	37,89	6.645,65
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	361.569,89	0,00	61,22	221.353,09
4. kap.: transferentzia arruntak	846.677,72	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	15.891,75	0,00	30,52	4.850,16
7. kap.: kapital transferentziak	668.553,23	0,00	0,00	0,00
8. kap.: aktibo finantzarioak	14.475,39	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	3.966.124,86	0,00	0,00	2.071.859,73

Bi urtez gorako antzintasuna duten kobratzeko saldoak, % 100ean kobragaitz bezala kontuan hartzen dira. Gainontzeko kobratu gabeko eskubideen kasuan, banaka aztertzen dira garrantziarengatik, edota datu historikoen arabera portzentajeak aplikatuz kalkulatu dira.

Kobratzeko eskubideen atalean kapital transferentziak eta transferentzia arruntak nabarmendu behar dira, horiek kobratzea ziurtat jotzen baita eta guztira 1.515.230,95 eta kopuru osoaren % 38,17 baitira.

Eskubide bat kobragaitz jotzeak edo kobraezin izendatzeak ez dakar horren anulazioa, ezta baja automatikoa ere.

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta haxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	20.800.932,02	17.779.643,88	3.021.288,14
b) Kapital-eragiketak	1.596.154,81	1.499.454,53	96.700,28
c) Aktibo finantzarioak	18.012,14	18.012,14	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	480.170,36	-480.170,36
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA (1=a+b+c+d)	22.415.098,97	19.777.280,91	2.637.818,06
KONTZEPTUAK	AINZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	500.801,46	1.820,99	-498.980,47
b) Kapital-eragiketak	-0,00	0,00	0,00
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	500.801,46	1.820,99	-498.980,47
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			2.138.837,59
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			237.411,19
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			16.706,66
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			449.582,91
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			-195.465,06
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			1.943.372,53

**2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA****11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA**

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina. Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatzeko dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili behar da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA			
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia	
57	1. (+) funts likidoak		6.203.626,35
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak		4.683.937,71
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	2.213.377,56	
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	1.756.333,58	
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	714.226,57	
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak		2.965.597,76
400	-(+) urteko aurrekontukoak	1.717.021,42	
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00	
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	1.248.576,34	
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak		5.516,61
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00	
555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	5.516,61	
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)		7.927.482,91
4900,4901,4902,4903	II. Kobrantza zalantzarriko saldoak		2.071.859,73
	III. Gehiegizko finantzaketa lotua		1.592.334,27
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)		4.263.288,91

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 7.927.482,91 eurokoa izan da; horietatik:

- ⇒ 2.071.859,73 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.
- ⇒ 1.592.334,27 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.
- ⇒ 4.263.288,91 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	5.788.645,32
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	2.138.837,59
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	7.927.482,91

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- a) Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- b) Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketarako kredituak.

2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA- PASAIKO UDALA

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren kreditu gerakinetatik txerta daitezkeen kredituak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA
1 08.609.01.151.00 2014	UE VELASCO OBRAK	367.822,77	c
1 08.643.01.151.00 2014	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	5.195,51	d
1 08.642.01.151.00 2016	PLAN OROKORRA	90.000,00	d
1 08.642.01.151.00 2017	PLAN OROKORRA	55.000,00	d
1 08.227.07.151.00 2017	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	5.425,64	b
1 04.481.03.231.08 2018	NAGUSIEN ETXEENTZAKO UDAL DIRULAGUNTZA	3.350,00	b
1 08.227.01.151.00 2018	ZARATAREN AURKAKO EKINTZA PLANA	4.448,75	b
1 08.227.07.151.00 2018	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	52.681,59	c,b
1 08.609.02.151.02 2018	HIRI EREMUEN URBANIZAZIOA	80.000,00	d
1 08.609.99.151.00 2018	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK	49.399,00	c
1 08.643.01.151.00 2018	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	55.211,00	c,d
1 09.221.02.160.00 2018	SANEAMENDUA	27.128,24	b
1 09.221.02.161.00 2018	UR HORNIDURA	33.556,86	b
1 09.221.02.166.00 2018	ARAZKETA	26.398,73	b
1 09.221.99.162.10 2018	GAINOTZENKO MATERIALA: IHS	69.641,55	a
1 09.629.01.162.10 2018	POLTSA KONPOSTAGARRIEN BANAGAILUAK	34.848,00	d
1 09.629.01.163.00 2017	GARBIKETARAKO INBERTSIOAK	137.310,82	d
1 09.629.01.163.00 2018	GARBIKETARAKO INBERTSIOAK	140.000,00	d
1 12.470.03.241.01 2018	OARSOALDEA: ENPLEGU PLANA	8.492,44	b
1 12.470.04.241.01 2018	GAZTEEN ENPLEGU PLANA	15.568,84	b
1 14.226.04.920.02 2018	KOSTA ETA GASTU JURIDIKOAK	30.000,00	b
1 16.601.01.153.00 2018	KMK ZOLAKETA LANAK	130.000,00	d
1 16.601.05.165.00 2018	ANTXOKO ARGIZTERIA HOBETU GUNE ILUNETAN	6.169,05	d
1 16.609.01.151.00 2018	PROIEKTUA BALORATZEKO SANTIAGO PLAZAKO P	10.000,00	b
1 16.629.01.334.01 2018	PROISA BEHIN BEHINEKO ERAIKINA	30.000,00	b,d
1 17.609.02.153.00 2018	ANTXOKO TOPOKO ARKUPEAK BIRGAITZEA ETA P	1.155,78	b
1 17.622.02.231.10 2018	DONIBANEKO GAZTELEKUA ATONTZEA ETA SARBI	31.496,65	b,d
1 17.623.02.136.00 2018	DONIBANEKKO HIRUG. SEGURTASUN PLANA	144.229,47	b
		1.644.530,69	

14.- ONDORIOAK

- Aurrekontu emaitza 2.138.837,59 eurokoa izan da, eta horrek hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak nahikoak izan direla finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko, baita itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko ere.
- Diruzaintza gerakin likidoa 5.855.623,18 eurokoa izan da; eta horrek entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Zenbateko horretatik 1.592.334,27 euro finantzaketa lotuari dagokio, eta gainerako 4.263.288,91 euroak gastu orokorretarako diruzaintza gerakinari.
- 2018ko foru funtsaren likidazioa positiboa izan da, eta horrek aurrekontu emaitzan eragin nabarmena izan du. Bestalde 6. kapituluko exekuzioa baxua izan da eta horrek ere eragina izan du, besteak beste, txertatu daitekeen kreditu kopurua altua izateko eta beraz gastu orokorretarako diruzaintza gerakina erabiltzea ekarriko du.

Txosten hau egiten dut, zuzenbidean hobeto oinarritutako bestelako iritzirik eragotzi gabe.

Pasaian, 2019ko martxoaren 21ean
Behin-behineko kontu-hartzailea

Miren Itziar Miner Canflanca